

**UDALBATZAK 2005EKO EKAINAREN 24AN  
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI  
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila bosteko ekainaren hogeita lauko 09:05 zirela, lehenengo deialdian eta Miguel Angel BUEN LACAMBRA alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Juan Carlos MERINO GONZALEZ.
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Jose Miguel GOLMAYO GAUNA
- Joseba Iñaki URIBE BURGOA
- Gema INSAUSTI MERINO
- Jose Angel SANCHEZ GALLARDO
- Joseba ETXARTE MARTIN
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Luis M<sup>a</sup> OIARBIDE ARIZMENDI
- Jose M<sup>a</sup> BURGOS VIÑARAS
- Mikel CARCEDO MITXELENA
- Juan Ignacio MENDEZ BEGUE
- Maite PEÑA LOPEZ
- Mikel ARRETXE GUTIERREZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Elias MAESTRO RUIZ
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARAN

Ez da etorri baina ezinetorria adierazi du M<sup>a</sup> Mar Martinez Fernandez andrea.

Era berean, bertan dago udal kontu-hartzaile Jose M<sup>a</sup> Arenzana

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO  
DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA  
24 DE JUNIO DE 2005**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:00 horas del veinticuatro de junio del año dos mil cinco, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Miguel Angel BUEN LACAMBRA, los siguientes Concejales:

- Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ.
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- José Miguel GOLMAYO GAUNA
- Joseba Iñaki URIBE BURGOA
- Gema INSAUSTI MERINO
- José Ángel SÁNCHEZ GALLARDO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Luís M<sup>a</sup> OIARBIDE ARIZMENDI
- José M<sup>a</sup> BURGOS VIÑARÁS
- Mikel CARCEDO MITXELENA
- Juan Ignacio MÉNDEZ BEGUÉ
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Mikel ARRETXE GUTIERREZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Elías MAESTRO RUIZ
- José Cruz LEGORBURU AYESTARAN

No asiste, excusando su asistencia D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Mar MARTÍNEZ FERNÁNDEZ.

Asimismo asiste el interventor Municipal José M<sup>a</sup> ARENZANA GARCIA.

Garcia jauna.

Bertan dago eta egintzaz fede ematen du idazkari nagusi Francisco Javier LESCA EZPELETA jaunak.

**1. Udalbatzak 2005eko apirilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri eta onartzea.**

Idazkari nagusiak 2005eko apirilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri du.

Carcedo jaunak (EA) eskatu du ondoko akatsa zuzentzeko.

Gai zerrendatik at aztertutako puntua, **-PPko partaideak hainbat batzorde eta patronatuetako kide berriro izendatzeko.**

Zera esaten duen lekuan:

**"M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ**

- Errenteriako Udal patronatuko batzordekidea..."

Zera esan behar du:

**"M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ**

- Errenteriako Udalaren Kirol patronatuko batzordekidea..."

Akatsa zuzendu ostean.

Udalbatzak, aho batez,

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1º.- Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 29 de abril de 2005.**

El Secretario General da lectura al Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 29 de abril de 2005.

El Sr. Carcerero (EA) solicita que se subsane el siguiente error de transcripción:

En el punto tratado fuera del Orden del Día **- Restitución de miembros del PP en diversas Comisiones y Patronatos.**

Donde dice:

**"M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ**

- Junta rectora del patronato Municipal de Errenteria....."

Debe decir:

**"M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ**

- Junta rectora del patronato Municipal de Deportes de Errenteria....."

Subsanado el error.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

## ERABAKI DU

-Onartzea 2005eko apirilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta.

### 2. Posta, erabaki ofizial eta lehendakaritzako kudeaketak.

Idazkari nagusiak Alkatearen ebazpenaren berri eman du. Bertan adierazten duenez, jasotzen zituen ordainsariei uko egiten dio 2005eko ekainaren lehen Eusko Legebiltzarrean sartzen delako.

Era berean, 2005eko ekainaren 10eko Alkatetza-dekretuaren berri eman du. Bertan udal langile Mikel Leonet jaunak tarteratutako duen errekurtsuaren gastuez Udala kargu egingo dela adierazten da, hots, 2005eko martxoaren 22an Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko epaitegiaren epaiaren aurka jarritakoa.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### 3. Alkateak emaniko ebazpenen (675 zk.tik 754 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (1271 zk.tik 1514 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoen berri ematea.

Alkateak emaniko ebazpenen

## ACUERDA

- Aprobar el Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 29 de abril de 2005.

### 2º.- Correspondencia, disposiciones oficiales y gestiones de la presidencia

El Secretario General da cuenta de la resolución del Alcalde renunciando a sus retribuciones municipales debido a su incorporación al Parlamento Vasco con fecha 1 de junio de 2005.

Asimismo da cuenta del Decreto de Alcaldía de fecha 10 de junio de 2005, relativo a la Sentencia en la demanda interpuesta por Mikel Leonet Escudero, empleado municipal, por la que, en base al recurso que va a presentar, se hace cargo de los gastos jurídicos de la defensa de Mikel Leonet Escudero en el recurso a interponer contra la meritada sentencia del Juzgado de 1ª Instancia e Instrucción nº 4 de Irún de fecha 22 de marzo de 2005.

El Pleno queda enterado.

### 3º.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs del 675 al 745, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs del 1271 al 1514, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno local.

Se da cuenta de las

(675 zk.tik 754 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (1271 zk.tik 1514 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoen berri ematea.

Udalbatzak jakinaren gainean geratu da.

#### **4. Errenteriako Udalak pertsonal izaerako datuetara jotzeko eta nola erabili arautzeko segurtasun dokumentuaren aldaketa.**

Udalbatzak 2004ko irailaren 24an eginiko ohiko osoko bilkuran onartu zuen Errenteriako Udalak pertsonal izaerako datuetara jotzeko eta nola erabili arautzeko segurtasun dokumentua.

III. kapituluan -Langileriaren eginkizunak eta betebeharrak-fitxero-arduraduna eta eta segurtasun arduraduna Udaleko idazkari nagusia izango zela adierazten zen.

Idazkariak eskatuta, puntu hori aldatzea eta Alkatearengan uztea azken erantzukizuna bidezkoa jo dute. Horretarako bide ematen dute Toki Araubide Oinarrien Lege Arautzailearen 21.1 a eta b artikuluetan errekonozitzen diren eskumenek, eta idazkari nagusiaren esku geratuko lirateke aholkularitza eta egin beharrekoen erantzukizuna. Era berean, Informazio Saileko arduradun teknikoak jasoko lituzke segurtasun arduradunari dagozkion

Resoluciones del Alcalde (nºs del 675 al 745 del año 2005, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs del 1271 al 1514 del año 2005, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno local.

El Pleno queda enterado.

#### **4º.- Modificación del Documento de Seguridad del Ayuntamiento de Errenteria para Regular el Acceso y Tratamiento de Datos de Carácter Personal.**

El Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 24 de septiembre de 2004 aprobó el Documento de Seguridad de este Ayuntamiento de Errenteria para regular el acceso y tratamiento de datos de carácter personal.

El Capítulo III- Funciones y Obligaciones del Personal, establecía la personificación del Responsable del Fichero y la del Responsable de Seguridad en el Secretario General del Ayuntamiento.

A instancias suyas se estima oportuno modificar tal extremo personificando en el Alcalde la responsabilidad suprema, amparándose para ello en las competencias reconocidas en el artículo 21.1 a y b de la ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, y residiendo en el Secretario General las funciones asesoras y de Responsable de Tratamiento. Asimismo el Técnico Responsable del Área de Información asumiría las funciones de

eginkizunak.

Lehendakaritza eta Barne Erregimen batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

#### **E R A B A K I D U**

**Lehenengo.-** Aldatzea III. kapituluan Errenteriako Udalaren Segurtasun Dokumentua -Langileriaren eginkizunak eta betebeharrak- espedientean azaltzen den moduan.

**Bigarren.-** Erabakia gauzatzeko egin beharrekoak egitea.

#### **5. Esnabideko 32 sektoreari buruzko 11. hirigintza-hitzarmena onartzea.**

##### **Aurrerakinak.-**

2005eko ekainaren 6an, Luis Mari Larburu Aizpuruak, Karpexxe Inmuebles, S.L.ren izenean, idatzi bat aurkeztu zuen esanez Esnabideko 32 sektoreari buruzko 11. Hirigintza-hitzarmena onartzen duela eta Udalak gauza bera egin dezan eskatzen du.

Errenteriako Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak 32 sektorerako (Esnabide) zera aurreikusten du: hiri gisa garatzen jarraitzea, eta ondorioz, parametririk esanguratsuenak hauek

Responsable de Seguridad.

A propuesta de la Comisión de presidencia y Régimen Interior.

El Pleno de la Corporación por unanimidad

#### **A C U E R D A**

**Primero.-** Modificar el Capítulo III "Funciones y Obligaciones del Personal" del Documento de Seguridad del Ayuntamiento de Errenteria en los términos que constan en el expediente.

**Segundo.-** Darle la tramitación oportuna para su plena efectividad.

#### **5º.- Aprobación del Convenio Urbanístico nº 11 del Sector 32: Esnabide.**

##### **Antecedentes.-**

Con fecha 6 de junio de 2005, Luis Mari Larburu Aizpuru, EN NOMBRE DE Karpexxe Inmuebles, S.L., presenta escrito acompañado de un borrador de Convenio Urbanístico relativo al desarrollo del sector 32: Esnabide del PGOU, manifestando su adhesión al mismo y solicitando igualmente que el Ayuntamiento suscriba su contenido.

El Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria establece, para el sector 32: Esnabide unas previsiones que se abordan desde la perspectiva de conformar un continuo urbano en el desarrollo urbanizador,

dira: 27 etxebizitza libre, 54 babes ofizialekoak eta ekipamenduak. Derrigorrez lagatu beharreko kontzeptuaz, berriz, aprobetxamenduaren %10 urbanizatzeko kargetatik libre, hots, eraikinek okupatu gabeko lurzorua (toki libreak), erabilpen eta jabari publikoa duena eta lokal "lehengo eskola"ren ordainetan. Jakinarazten da Ermuan gehiengoaren jabe Karpetxe Inmuebles, S.L. sozietatea eta Erretereriako Udala direla.

2005eko ekainaren 9an, udal bulego teknikoko Enrique Pontek, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak eta Kontratazio eta Ondare Saileko arduradun Tomas Martin jaunak elkarrekin eginiko txostenean hitzarmena sinatzearen aldeko irizpena eman zuten.

Hirigintza batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

#### **E R A B A K I D U**

1. **Onartzea 11 zk.ko hitzarmena,** Erretereriako Udala eta Luis Mari Larburu Aizpurua jaunak (edo Emilio Prieto Pe jaunak), Karpetxe Inmuebles, S.L.ren izenean, Esnabide 32 sektorea garatzeko izenpetuko dutena.

2. Alkatea espresuki

siendo los parámetros más significativos la obtención de 27 viviendas libres, 54 de VPO y equipamiento dotacional; y en concepto de cesiones obligatorias el 10% de aprovechamiento lucrativo libre de cargas de urbanización, suelo no ocupado por la edificación (espacios libres) de uso y dominio público y un local social en sustitución del "antiguo edificio escolar". Hay que señalar que los propietarios mayoritarios de los terrenos del referido ámbito son la sociedad Karpetxe Inmuebles, S.L. y el Ayuntamiento de Erretereria.

Con fecha 9 de junio de 2005, el director de la oficina técnica municipal, Enrique Ponte, el asesor jurídico municipal, Vicente Castiella, y el responsable de contratación y patrimonio, Tomás Martín, emiten informe conjunto favorable a la suscripción del convenio.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

#### **A C U E R D A**

1º.- **Aprobar el Convenio Urbanístico nº 11,** a suscribir entre el Ayuntamiento de Erretereria y Luis Mari Larburu Aizpurua (ó Emilio Prieto Pe), en nombre de Karpetxe Inmuebles, S.L., para el desarrollo del sector 32: Esnabide.

2º.- **Facultar** expresamente al

**ahalmentzea** hartutako erabakiak Jabetza Erregistroan inskribatzea erdietsi artean sinatu beharreko dokumentu publiko zein pribatu guztiak sinatzeko, baita Udalaren izenean aipatu hitzarmena sinatzeko ere.

3. **Argitara ematea** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarian jendea jakinaren gainean jartzeko.

**6. Gamongoako 56 sektorea garatzeari buruzko 12. hirigintza-hitzarmena onartzea.**

**Aurrerakinak.-**

2005eko ekainaren 13an, Jose Luis Zarauz Agirrezabalaga jaunak, Promociones Suquia, S.L. ren izenean, idatzi bat aurkeztu zuen, Gregorio Luis Ezquerria jaunak, NASIPA, S.L. ren izenean, Luis Mari Larburu Aizpurua jaunak, FONORTE, S.L. ren izenean eta José Ignacio Suquía Garmendia jaunak, PROMOCIONES SUQUÍA, S.L. ren izenean, izenpetutako beste batekin batera, Gamongoa 56 sektorea garatzeko hitzarmen zirriborroa ere bertan zegoela. Bertan ados daudela adierazten dute eta Udalak ere izenpetu dezan eskatzen dute.

Sr. Alcalde-Presidente, para que con objeto de realizar las actuaciones pertinentes hasta conseguir, cuando proceda, la inscripción en el Registro de la Propiedad de los acuerdos adoptados, firme cuantos documentos públicos o privados sean necesarios o convenientes, así como para que en representación de este Ayuntamiento firme el mencionado Convenio Urbanístico.

3°.- **Publicar** el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión de la provincia a los efectos de su conocimiento general.

**6°.- Aprobación del Convenio Urbanístico nº 12 relativo al desarrollo del Sector 56: Gamongoa.**

**Antecedentes.-**

Con fecha 13 de junio de 2005, José Luis Zarauz Agirrezabalaga, en nombre de Promociones Suquia, S.L. presenta escrito, junto con otro suscrito por Don Gregorio Luis Ezquerria, en representación de NASIPA, S.L., de Don Luis Mari Larburu Aizpurua, en representación de FONORTE, S.L. y de Don José Ignacio Suquía Garmendia, en representación de PROMOCIONES SUQUÍA, S.L., y acompañando borrador de Convenio Urbanístico relativo al desarrollo del sector 56: Gamongoa del PGOU, manifestando su adhesión al mismo y solicitando igualmente que el Ayuntamiento suscriba su contenido.

Errenteriako Hiri-  
antolamenduko Plan Orokorrak  
Gamongoa 56 sektorerako zera  
aurreikusten du: hiri gisa garatzen  
jarraitzea, eta ondorioz,  
parametrorik esanguratsuenak hauxek  
dira: 526 babes ofizialeko  
etxebizitza, sustapen libreko 114  
etxebizitza eta familia bakarreko 50  
etxebizitza erdiestea. Derrigorrez  
lagatu beharreko kontzeptuaz,  
berriz, aprobetxamenduaren %10  
urbanizatzeko kargetatik libre,  
hots, komunikazioetako sistema  
orokorrari lotutako lurzoru guztia,  
toki libretako sistema orokorrari  
lotutako lurzoru guztia eta Plan  
Partzialean erabilera eta jabari  
publiko gisa definitzen den lurzoru  
guztia, ekipamenduetarakoa barne  
dela.

2005eko ekainaren 16an, udal  
bulego teknikoko Enrique Pontek,  
udal lege-aholkulari Vicente  
Castiellak eta Kontratazio eta  
Ondare Saileko arduradun Tomas  
Martin jaunak elkarrekin eginiko  
txostenean hitzarmena sinatzearen  
aldeko irizpena eman zuten.

Era berean, 2005eko ekainaren  
17an, udal bulego teknikoko  
zuzendariak eta udal lege-  
aholkulariak gai horri buruzko  
txostena egin dute elkarrekin,  
aurrekoaren gauza zenbait  
argitzearen.

Hirigintza batzordearen  
proposamena ikusitakoan.

El Plan General de Ordenación  
Urbana de Errenteria establece, para  
el sector 56: Gamongoa unas  
previsiones que se abordan desde la  
perspectiva de conformar un continuo  
urbano en el desarrollo urbanizador,  
siendo los parámetros más  
significativos la obtención de 526  
viviendas de VPO, 114 viviendas de  
promoción libre y 50 viviendas de  
promoción libre unifamiliares; y en  
concepto de cesiones obligatorias el  
10% de aprovechamiento lucrativo  
libre de cargas de urbanización, la  
totalidad de suelo vinculado al  
Sistema General de Comunicaciones,  
la totalidad del suelo vinculado al  
Sistema General de Espacios Libres y  
la totalidad del suelo que en el  
Plan Parcial se defina como de uso y  
dominio público, incluido el  
dotacional.

Con fecha 16 de junio de 2005,  
el director de la oficina técnica  
municipal, Enrique Ponte, el asesor  
jurídico municipal, Vicente  
Castiella, y el responsable de  
contratación y patrimonio, Tomás  
Martín, emiten informe conjunto  
favorable a la suscripción del  
convenio.

Así mismo, con fecha 17 de  
junio de 2005, el director de la  
oficina técnica municipal y el  
asesor jurídico municipal, emiten  
informe complementario al respecto,  
clarificando alguna cuestión puntual  
del anterior informe.

Vista la propuesta de la  
Comisión de Urbanismo.



Ondokoak mintzatu dira:

\* Maestro jaunak (EB-IU) adierazi duenez gai hau izan da Plan Orokorraren oinarritzko ardatza, eta poztu egiten da hitzarmen hau osoko bilkurara ekarri delako. Poztu egiten da batez ere Buen jauna buru dela Udalbatzaren azken bilkura izango delako. Eskerrak ematen dizkio alkateari hitzarmen hau gauzatzeko egin duen ahaleginagatik, izan ere, beragatik izan ez balitz oso zaila izango litzateke hitzarmen hau gaur egun mahai gainean egotea, besteak beste, gaia oso konplexua delako. Bereziki eskertzen dio badakielako zenbat suposatzen duen hitzarmen honek Udalbatza honentzat, izan ere, hitzarmena dela medio, babes ofizialeko 500 baino etxebizitza gehiago egingo baitituzte.

\* Buen jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan duenaren arabera 2 hitzarmenak garrantzitsuak dira, baina hau bolumenari dagokionean, are inportanteagoa da babes ofizialeko 520 etxebizitza kolpean merkatuan jarri ahal izango direlako, eta horrek herrian oso garestia den etxebizitzaren prezioan eragina beharko lukeela izan uste du. Edonola ere, nahiz eta eskertzen duen Maestro jaunaren (EB-IU) gorespena, berak bere betebeharrarekin bete du. Hots, kudeatu, aspaldidanik egiten aritu dena. Amaitzeko, berriro eskertu ditu Maestro jaunaren (EB-IU) hitzak.

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Toma la palabra el Sr. Maestro (EB-IU) y manifiesta que este tema ha sido el núcleo fundamental del Plan General y que se alegra de que este convenio se haya traído al Pleno. Sobre todo y, ya que va a ser el último Pleno que va a Presidir el Sr. Buen, agradece a la Alcaldía las gestiones que ha hecho para que sea posible la firma del convenio, puesto que sin su intervención hubiera sido muy difícil que el convenio estuviera hoy encima de la Mesa por la complejidad del tema. Se lo agradece especialmente porque sabe lo que significa este convenio para esta Corporación, ya que a través del mismo se van a edificar más de 500 viviendas de VPO y para ellos es muy importante.

\* El Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que los 2 convenios son importantes, pero este, en cuanto a volumen, lo es mucho más porque es el que va a poner en el mercado 520 viviendas de VPO de una sola vez, lo que debiera de tener algún efecto sobre el carísimo precio de la vivienda que soportan en nuestra ciudad. En todo caso y aún agradeciendo la alabanza del Sr. Maestro (EB-IU), señala que no ha hecho más que lo que era su obligación: gestionar; que es lo que ha venido haciendo durante muchos años. Finaliza agradeciendo de nuevo al Sr. Maestro (EB-IU) sus palabras.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

#### **E R A B A K I D U**

#### **A C U E R D A**

1. **Onartzea 12 zk.ko hitzarmena** Errenteriako Udalak eta Jose Luis Zarauz Agirrezabalaga jaunak, Promociones Suquia, S.L.ren izenean, idatzi bat aurkeztu zuen, Gregorio Luis Ezquerria jaunak, NASIPA, S.L.ren izenean, Luis Mari Larburu Aizpurua jaunak, FONORTE, S.L.ren izenean eta José Ignacio Suquia Garmendia jaunak, PROMOCIONES SUQUÍA, S.L.ren izenaren, izenpetuko dutena Gamongoa 56 sektorea garatzeko.

2. Alkatea espresuki **ahalmentzea** hartutako erabakiak Jabetza Erregistroan inskribatzea erdietsi artean sinatu beharreko dokumentu publiko zein pribatu guztiak sinatzeko, baita Udalaren izenean aipatu hitzarmena sinatzeko ere.

3. **Argitara ematea** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarian jendea jakinaren gainean jartzeko.

7. Proposamena: kale izendegia

1º.- **Aprobar el Convenio Urbanístico nº 12**, a suscribir entre el Ayuntamiento de Errenteria y Miguel Luis Ezquerria, en representación de NASIPA, S.L., de Luis Mari Larburu Aizpurua, en representación de FONORTE, S.L. y de José Ignacio Suquia Garmendia, en representación de PROMOCIONES SUQUÍA, S.L., para el desarrollo del sector 56: Gamongoa.

2º.- **Facultar** expresamente al Sr. Alcalde-Presidente, para que con objeto de realizar las actuaciones pertinentes hasta conseguir, cuando proceda, la inscripción en el Registro de la Propiedad de los acuerdos adoptados, firme cuantos documentos públicos o privados sean necesarios o convenientes, así como para que en representación de este Ayuntamiento firme el mencionado Convenio Urbanístico.

3º.- **Publicar** el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión de la provincia a los efectos de su conocimiento general.

7º.- Propuesta de denominación de

**onartzeko.**

\* Buen jaunak, alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez izenburua ez dator bat proposamenarekin, kontua toki publikoei izena jartzea delako.

Jarraian.

Alkatetzak eginiko proposamena ikusi dute.

Halaber Euskara koordinatzaile Arantza Etxezurietak 2005eko ekainaren 20an eginikoa.

Eta Hirigintza batzordeak eginiko proposamena ikusitakoan.

Ondokoak mintzatu dira:

\* Buen jaunak, alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez Gamongoko hitzarmena bezain garrantzitsua da gai hau, nahiz eta beste arrazoi batzuegatik izan. Beretzat eta Udalbatzarentzat betebeharrak bat eta bi lagunekiko zeukaten zorra da. José Manuel Zamarreño jauna oso denbora gutxi aritu zen lanean Udalbatzan, baina Jose Luis Caso jauna denbora dezente aritu zen lanean, gainera asko eta leialtasun osoz. Biek defenditu behar zutelako uste zuten ideia politikoak defendatu zituzten; gauza bera Erretereriako herritarren interesei dagokionean, eta halaber,

**calles.**

\* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) e indica que el título del presente tema no se ajusta a la propuesta, ya que de lo que se trata es de la denominación de espacios públicos.

A continuación.

Vista la propuesta del Alcalde-Presidente.

Visto el informe de la Técnico Coordinadora de Euskera, Arantza Etxezurietak, de fecha 20 de junio de 2005.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta que casi tan importante como el convenio de Gamongoa, por razones de otro tipo, lo es el presente asunto. Añade que, para él y también para la Corporación era un deber y una deuda pendiente con 2 compañeros que, en el caso de José Manuel Zamarreño estuvo muy poco tiempo trabajando en la Corporación y en el caso de José Luis Caso estuvo bastante tiempo trabajando muy intensamente y lealmente y, en los dos casos, defendiendo los valores que entendían que tenían que defender en cuanto a sus ideas políticas, en

demokrazia eta askatasunaren defentsan. Eta ez eurentzat bakarrik, baizik eta ordezkatzon zuten jendearentzat, eta elektoralki ordezkatzon ez zuten jendearentzat ere. Horrela, pena duen gauza bakarra lehenago ez egin izana du. Izan ere, bere irudiko, denbora gehiegi pasa baita Jose Luis eta Jose Manuel hil zituztenetik. Oker ez badago, 6 urte pasa dira Jose Manuel erail zutenetik, eta 6 urte nahiko denbora da jende askok ahaztua edukitzeko. Alabaina uste du Udalbatza honetan eurekin bizi izan zirenentzat sekula ez dela izango nahiko denbora. Gainera, pentsatzen du ona dela ez izatea nahiko denbora eta gogoan edukitzea bizia kendu zioten pertsonak gogoan edukitzea, izan ere, eurei ideia eta printzipio batzuk defenditzeagatik bizia kendu baitzioten, ez baitzuten eman. Beraz, uste du bidezkoa dela, eta inolako zalantzarik gabe akordioa aho batez hartuko dela, eta hori esanguratsua eta eskertzeko modukoa da, gaineratu du.

\* Peralta andreak (PP) eskerrak eman dizkio alkateari, Buen jaunari (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) bere bi lagunengatik egin duenagatik, besteak beste, gutxienez herri honetan haien oroimena geratzeko delako. Berak zeukan erronka zera zen: Udal honetan egiten zuten lana errekonozitua izan zedin, nahiz oso denbora gutxi utzi zioten. Horregatik, Buen jaun alkatearengana (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) zuzenduz eskerrak eman dizkio haien izenean, bere

cuanto a los intereses de los ciudadanos de Errenteria y también en defensa de la democracia y de la libertad no solamente para ellos sino para la gente que representaban y también para la que no representaban electoralmente. Lo único que lamenta es no haberlo hecho con anterioridad. Ha pasado demasiado tiempo desde que mataron a José Luis y a José Manuel. Hace ahora, si no recuerda mal, 6 años del asesinato de José Manuel y 6 años es suficiente tiempo para que mucha gente los haya olvidado. Cree que para los que convivieron con ellos en esta Corporación nunca será suficiente tiempo, y además es bueno que no lo sea y tengan memoria de las personas a las que les quitaron la vida -ellos no dieron la vida, se la quitaron- por defender unas ideas y unos principios. Por lo tanto era de justicia y, sin lugar a dudas el acuerdo va a ser por unanimidad, lo cual es, si cabe, mucho más significativo y de agradecer.

\* Interviene la Sra. Peralta (PP) que da las gracias al Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) por lo que ha hecho por sus 2 compañeros, ya que, al menos en este pueblo quedará su recuerdo. Añade que el "caballo de batalla" que ella tenía era que fuera reconocida la labor que hicieron en este Ayuntamiento aunque fue muy poco tiempo el que los dejaron. Por ello, dirigiéndose al Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), le da las gracias en su nombre, en el de su partido y en

alderdiarenean eta eraildako bi lankideen familiaren izenean.

\* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez ez zuen zinegotzi gisa haiekin jardun, baina ezagutzen zituen. Pozten da gaur proposamen hau onartzen ari direlako. Bere ustez, errekonozimendu honek, berandu bada ere, duintzen du Udalbatza eta Erretereria herria. Beraz bada, dio, bera ere asko pozten du egintza honek.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

#### **E R A B A K I D U**

1. **Onartzea** ondoko izenak jarraian ezagutzera ematen diren gunen publikoetarako.

\* Kaputxinoetako begiratokiko parkeari:

**José Manuel Zamarreño parkea**

\* Antzinako merkatuko kulturantzeko aretoari:

**José Luis Caso aretoa**

**8. Proposamena: Udal Liburutegietan liburuak denboraldi baterako uzteagatik kanon bat kobratzeko.**

Espedientean dagoen idatziaren bidez, "Bibliotecas y Propiedad

el de la familia de sus 2 compañeros asesinados.

\* El Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) que no compartió periodo corporativo con esos 2 compañeros pero que sí los conocía, se congratula de que hoy estén aprobando esta propuesta. Cree que este reconocimiento, aunque tardío, dignifica a la Corporación y al pueblo de Erretereria. Por tanto, también él se alegra enormemente por este acto de reconocimiento.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

#### **A C U E R D A**

1.- **Aprobar** la siguiente denominación para los espacios públicos que a continuación se especifican:

• Parque del mirador de Capuchinos:

**José Manuel Zamarreño parkea**

• Sala multicultural del antiguo mercado:

**José Luis Caso aretoa**

**8º.- Propuesta sobre el pago de un canon por préstamo en las Bibliotecas Públicas Municipales.**

En base al escrito adjunto al expediente y elaborado por el grupo

Intelectual de la Federación Española de Sociedades de Archivística, Biblioteconomía, Documentación y Museística (FESABID)" taldeak egina, zera adierazi nahi dizuegu:

Liburutegi publikoek, eta batez ere udal liburutegi publikoek, kultur politikak garatzeko lehenengo baliabideak direla. Liburutegietako oinarritzko jardueratariko bat liburuak etxera eramaten uztea da, eta UNESCO eta Liburutegien Elkarteko Nazioarteko Federazioaren (INLA) aholkuen arabera, denentzako zerbitzu bat izatea nahi badugu, doakoa izan behar du, hots, trukean ezer ordaindu gabe.

Hala ere, jabetza intelektualaren eskubidea ez delako ondo ulertua izan edo, egilearen eskubide gisa ezagunagoa dena, eskubide hauek kudeatzen dituzten sozietateek, Europar Batasuneko jarraibide batean oinarrituz, liburuak utzi ahal izateko kanon bat ordaintzea eskatzen dute. Kanon hau liburutegietako eginkizunetan jar-araztzen bada, liburutegietako aurrekontuak dezente murriztuko dira, eta ondorio txarrak izango lituzke liburutegiak eskaintzen duen zerbitzurako.

Kultura batzordeak 2005-03-16an gai honi buruzko irizpena eman zuen.

Kultura batzordeburuaren

de Bibliotecas y Propiedad Intelectual de la Federación Española de Sociedades de Archivística, Biblioteconomía, Documentación y Museística (FESABID) queremos manifestar lo siguiente:

Las bibliotecas públicas, y muy especialmente las bibliotecas públicas municipales, son la primera célula de desarrollo de las políticas culturales. Una de las actividades básicas de las bibliotecas es el préstamo de libros a domicilio y, para que sea efectivamente un servicio para todos, según las recomendaciones de la UNESCO y la Federación Internacional de Asociaciones de Bibliotecarios (IFLA), ha de ser gratuito y libre de cualquier canon o gravamen.

No obstante, por un mal entendido desarrollo del derecho de propiedad intelectual, más conocido como derechos de autor, las sociedades de gestión de estos derechos reclaman, basándose en una directiva de la Unión Europea, el pago de un canon por el ejercicio del préstamo de libros. Si este canon llega a imponerse en la práctica bibliotecaria los presupuestos de las bibliotecas se verían notablemente mermados, lo que tendría muy malas consecuencias para el servicio bibliotecario.

Dado el acuerdo de la Comisión de Cultura de 16-03-2005.

Vista la propuesta del

proposamena ikusitakoan.

Ondokoak mintzatu dira:

\* Peralta andreak (PP) adierazi duenez bera kide den alderdia abstenitu egingo da bozkatzeko garaian, izan ere, euren iritziz norbaitek jabetu behar du egileentzako kanonaz. Berak ez daki udalek izan behar duten, Kultura Ministeritza edo besteren bat izan behar duen. Argi du ez dutela zergadunek izan behar kanona ordainduko duena, baizik eta lehen aitaturako erakunderen bat. Eta berriro dio bozketan abstenitu egingo direla, egileak dituzten eskubideak kentzea ez zailako zuzena iruditzen.

\* Carcedo jaunak (EA) euskaraz adierazi duenez eurek alde bozkatuko dute, hain zuen pasa den martxoan Kultura batzordean hartu zuten jarrerari jarraiki. Dirudenez, kasu honetan europar zuzentarau batean oinarrituz egilearen eskubidea defenditu nahi dira, baina eurek uste dute alde aurretik gauza horiek aztertutak daudela eta zerbitzu publiko bati eta liburutegi bati bere aurrekontuetan dezente eragina eta kaltea sor diezaiokeela. Euren iritziz kontua dagoen dagonean mesedegarria da autorentzat hainbat leku publikoetan obrak erostea eta gero horiek jendeari helaraztea. Eurek zerbitzua erabat doanekoa izateko irizpidea lehenetsi egiten dute, beste hainbat arrazoien aurrean. Eta proposamenean ematen

Presidente de la Comisión de Cultura.

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Toma la palabra la Sra. Peralta (PP) y manifiesta que su grupo se va a abstener en la votación, ya que consideran que alguien tiene que hacerse cargo del canon para los autores. No sabe si deben ser los Ayuntamientos, el Ministerio de Cultura o algún otro estamento. Lo que sí creen es que no deben ser los contribuyentes los que paguen el canon sino algunas de las instituciones antes citadas. Insiste en que se van a abstener en la votación porque creen que sería injusto privar a los autores de sus derechos.

\* Interviene el Sr. Carcedo (EA) en euskera manifestando que van a votar a favor, manteniendo así la misma postura que adoptaron en la comisión de Cultura del pasado mes de marzo. Indica que al parecer en este caso, basándose en una directiva europea, se quieren defender los derechos del autor, pero piensan que estas cosas están estudiadas con anterioridad y que sin embargo a un servicio público y una biblioteca generaría en sus presupuestos un perjuicio bastante grande. Asimismo, piensan que dejando las cosas tal cual también es beneficioso para los autores, ya que en muchos lugares públicos se compran sus obras para luego hacer llegar a la gente. Ellos le dan prioridad a que el servicio sea

diren argudioekin ados daudenez alde bozkatuko dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 18 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, EA eta EAJ/PNV) eta 2 abstentziaz (PP),

#### **E R A B A K I D U**

- Errenteriako Udalak udal liburutegi publikoetan liburuak uzteagatik kanon bat kobratzearen aurkako adierazpena egitea, eta erabaki hori ondoko erakundeetara bidaltzea:

Europako Batasunera  
Europako Legebiltzerrera  
Kultura Ministeritzara  
Kultura Kontseilaritzara  
FEMP-era  
Udalerrri eta probintzietako federazio erregionalera.  
FESABID-era  
ANABAD-era  
EUDEL-era

#### **9º.- Galderak eta eskariak.**

\* Otegi jaunak (Enpresa Batzordea) adierazi duenez gustatuko litzaioke gaur hona beste jende asko etorri den bezala etortzea, hots, alkatea despeditzera eta etapa berri honetan gauzak ondo atera dakion

totalmente gratuito ante otro tipo de argumentos. Y como quiera que están de acuerdo con los argumentos que se vierten en la propuesta votarán a favor de la misma.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 18 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, EA y EAJ/PNV) y 2 abstenciones (PP)

#### **A C U E R D A**

- Que el Ayuntamiento de Errenteria se manifieste contra el pago de un canon por préstamo público en las bibliotecas públicas municipales y que dicho acuerdo se haga llegar a las siguientes Instituciones:

Unión Europea  
Parlamento Europeo  
Ministerio de Cultura  
Consejería de Cultura  
FEMP  
Federación regional de municipios y provincias.  
FESABID  
ANABAD  
EUDEL

#### **9º.- Ruegos y Preguntas**

\* Toma la palabra el Sr. Otegi (Comité de Empresa) y manifiesta que le hubiera gustado venir hoy aquí simplemente, como tanta gente lo ha hecho, para despedirse del Alcalde y desearle que en su nueva etapa le



desiratzera, alabaina, zoritxarrez, ebatzi gabe geratu da Enpresa Batzordeak zein langileek larritzat jotzen duten gai bat, izan ere bai baitaude 6 lankide espediente baten baitan, 2 hilez soldata eta lanetik baztertu ditzakeenak. Horrela, gai horri buruz mozio bat aurkezteko asmo zuten, baina jakin dute idazkariak eginiko txosten batean kontua hau ez litekeela mozio modura aztertua izan adierazi duela. Eta beraz, hori horrela bada, alderdi politikoek euren jarrera erakuts dezaten eskatzen dute.

\* Buen jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jakinarazi dio alderdiek ez dutela jarrerarik erakutsiko, besteak beste, galdera-eskarien puntuan daudelako. Gainera, bere agintaldia lasaitasun pittin batekin amaitzea gustatuko litzaioke, nahiz eta badakien hori Otegi jaunari gutxi axola zaiola, sekulan egin ez zaion bezala. Halaber esaten du zinegotzi gisa egon zen lehenengo bilkuran egundoko kalapita armatu zela. Orduan ez zion gaiari ihes egin, orain egingo ez dion bezala. Berak dioenez komitekoek badakite ongi aski nolakoa den egoera, baina bueltak eman eta eman dabilta, eta batez ere, zu Otegi jauna, gaineratu du. Eta berriro errepikatu du alderdi politikoek ez dutela euren jarrera adieraziko gaur hemen bozka emanaz. Horrezaz gain, nahiz eta bozkatu eta euren jarrera hartu -lehen Otegi jaunari publikoki osoko bilkuran baita idatziz ere esan zion moduan-

vayan las cosas bien, pero por desgracia queda en "el tintero" un punto considerado grave por el Comité de Empresa y por los trabajadores, ya que hay 6 trabajadores pendientes de un expediente que los puede apartar de empleo y sueldo durante 2 meses. Continua diciendo que pretendían presentar una moción al respecto, pero se han enterado que según informe emitido por el Secretario no pueden tratar el tema como moción. Siendo esto así, lo que solicitan es el posicionamiento de los grupos políticos

\* El Alcalde, Sr. Buen (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que los grupos no se van a posicionar. Están en el punto de "ruegos y preguntas". Añade que le hubiese gustado acabar su mandato con una cierta tranquilidad. Ya sabe que eso al Sr. Otegi le importa "una higa" como siempre le ha importado. También dice que en la primera sesión que estuvo como Concejal fue con una bronca monumental. Ni la rehuyó entonces ni la va a rehuir ahora. Añade que saben perfectamente cual es la situación de esta cuestión pero siguen dándole vueltas -y personaliza-, fundamentalmente el Sr. Otegi. Continua diciendo que los grupos políticos hoy y aquí no se van a posicionar votando. Aunque votaran y se posicionaran, como ya le dijo en otra ocasión al Sr. Otegi no solo públicamente en el Pleno sino también por escrito, no vincula al Alcalde porque se trata de una materia, que para su mal, es de su

